

**LINO AKESOLOREN
GIZATASUN-IZPIAK**

Norbait bizon artetik ezkututzen zaigunean, norbait hori izaera gorenekoa, jakintsua, ona, maitatua izan denean batez ere, haren nortasunak gure oroimenean utzi duen itzala hitzez nolabait adierazi edo taiutu nahi izaten dugu. Ikus-entzuteko komunikabideak berehala jarri ziren horretan eta idatzizkoak geroxeago. Akesoloren nortasun handia ezin hitz gutxitan laburbildu eta haren alderdirik goresgarrienak aipatu zituzten soilik: jakintsua, euskal Hteraturaren ezagutza aparta zuena, irakurle porrokatua, itzultzaile bikaina...

«*Karmel*» aldizkari honetan ere, besteak beste, aide horiexek azpimarratzen dira, hiruhilabetekari izateak damaion gogoeta astitsuz.

Alabaina idazlantxo honek haren gizatasunaren isladatxoa izan nahi luke. Haren ondoan bizi zirenek, Linori eguneroko bizitzan han eta hemen jaulkitako izaera-printzak, sarritan umore—ttanttoz gozatuak, bildu dituzte. Puzzle baten antzera, urliak eta sandiak emandako puskak elkarrekin doitu eta Linoren beste iruditxo xumea gauzatzea dagokit niri. Eta benetan gogotsu ekin diot puzzle-jokoari.

Lekukoak, jakina, eguneroko gauzatxoak aipatzen direnez gero, karmeldarrak dira eta hementxe aipatzen ditut haien

izenak: Patxi Uribarren, Julen Lirkiza, Andoni Olea, Domingo Ibargutxi, Luis Baraiazarra.

Zortzi urtez bizi izan nintzen Aita Linorekin -dio batek-horietariko lau teologiako ikasle nintzela.

Edozein eginkizun egiteko beti prest egon ohi zen. Horregatik Aita Felix Malax amorotoarrak, Karmeioko nagusi zela, pastoral—zerbitzuak betetzeko kanpotik zetozen eskaerei beti baietza ematen zien, Lino etxean izanik, edozer izanda ere, hark txistik esan gabe beteko zuela bazekielako. Egiteko horiek, gehienetan, zailak, nekagarriak eta beste inork egin nahi ez zituen horietarikoak izan ohi ziren.



Euskal apaizak Pavbo Vlgarrenarekin

Karmelora pertsona gogaikarriren bat etorri eta gainerako guztiak, aitzaki-maitzaki, ezkututzen zirenean, nagusiak Linori esaten zion «arrotz goren» hari abegi egiteko; ongi baino hobeki bete ohi zuen agindu hori, egonarriz orduak ere harekin igarotzeraino.

Hura haserrez gora-goraka eta purrustadaka ikusteak barregura handia ematen zigun. Hori dela eta, batzutan, geuk

zirikatzen genuen. Gazteen gauzak! Sumindurik eta gori-gori zegoenean ere ezin zuen bere izaera ona ezkutatu; horregatik genuen atsegina hala ikustea...


Bere idazlanetan kritika zorrotza eginik, Euskal Herriko ustezko jakintsuek berari buruz zabaltzen zituzten esamesak direla eta, nahikoa barre egin ohi zuen.

Edozertaz irakurtzeko grina bitxia zuen. Idatzitakoa harentzat gauza sakratua zen. Benin baino sarriago idatzi izan nuen paper puska batetan edozein zozokeria, eta Linok handik igaro behar zuela jakinik, erdi zimurturik lurrera egotzi; A. Linok hara heldu eta berehalaxe jaso ohi zuen, irakurri eta bere gelara eramanez.

Janzkeran beti agertzen zen habituaz eta pobre; ez zen batere arduratzen dotore janzteaz; inoiz ikusi izan nuen kolore ezberdinetako galtzetinekin, besterik ez zeukalako edo eta puskaturik zeuzkalako. Neuk aldatu behar izan nizkion bi aldiz; orduan purrustadaka hasten zitzaidan, baina, gorago adierazi dugunez, haren tonu-igoerak guztiz kaltegabeak ziren. Nik neuk, gainera, halaxe ikustea nai..., hain zen maitagarria!

Arropak direla eta beste lekuko batek honako hau diosku: «Jendaurrean omenaldiak eskerronez hartu bazituen ere, ez zien horrelako gauzei garrantzirik ematen; esaterako, eta horren lekuko neu naiz, 1989.eko apirilaren 7an Bizkaiko Diputazioak omenaldia egingo zion egun berean, ekintza hori baino ordubete lehenago, bere gauzetan bum eta bihotz ari zela (ikerlan eta antzekoetan), ez zen prestatu omenaldira joateko eta azken unean habitu berriaren eskapulario eta txanoaren bila aritu ginen, eta txanoa aurkitu ez genuenez gero, batere gabe Joan zen Diputaziora... egun hartako argazkietan ikus daitekeenez...»

Aurtengo udan gertatu zan honako pasadizu hau, Bilboko Aste Nagusian eta igandez, hain zuzen ere.



A. Lino, kaperau zintzoa, Solokoetxeko Gurutzeko Alabetara joana zen goizean meza ematera. Eta Ronda Kaletik irtenik, Plaza Berrian zehar igaro zen bide batez «rastroan» bere gogoko libururen bat ikusten zuen begiradatxo bat eginez. Areatza inguruan gazte bat hurbildu zitzaion. Aste Nagusian gautxori ugari izaten da eta hark ere, gau osoa oheratu gabe eta txosna guztiak iladan pasatu ondoren, ederra zeukan katua, kontizu...! Hizketan ere ezagun zuen, hain zuen leuna mihia...! A. Linoren fraide-habitua ikusi zueneko, honen ondora etorri eta ardo-edanontzia eskuan, noranahi laguntzeko prest agertu zitzaion. Linok irribarre egin zion salotasunez; eta Santutxurako Bilbobusa, jaiak zirela eta, Areatzatik igarotzen ez zenez gero, Udaletxe aurrera zihoala han hartzeko asmoz.

Biak batera tapa-tapa joanik, A. Jose Migel Barandiaran ezagutzen ote zuen galdetu zion gazteak (garai hartan Espainiako erregeen bisita zela eta, komunikabide guztiek hitz

egiten zuten hartaz). Haren lana benetan miresten zuela esan zion... eta noizbait haitzuloak miatzen ibilitakoa zela bera ere, baina hobby hutsez. Isildu gabeko berriketari emana zen gazte'a, baina alkoholaren eraginez titili-patala ari zen. Halako batetan, ez zela fededun aitortu zion; bete-betean Jainkogabea ere ez, baina agnostikoa zela.

Isil-isilik entzun eta entzun zihoan Aita Lino, eta une horretan biziki ihardetsi zion: «Badakizu zer esan zuen behin Jose Migel Barandiaran-ek agnostikoei buruz? Eulisto koldar batzu baizik ez zirela. Sinesten ez zuten zerbait bete-betean ukatzeko ausardiarik ere ez zutela..."

Gaztea ez zen, horraitio, mindu. Lehen bezain berritsu jarraitu zuen, eta berak, erlijio-sentimendurik gabea izan arren, begirunerik handiena ziela, euren nortasuna ezkutatu gabe, Bilboko kaleetan zehar fraide habitu eta guzti ibiltzen zirenei. (Eta ez zen hau izan kasu bakarra; behin baino sarriago jaso bait du A. Linok Bilboko kaleetan jende askorengandiko oneritzia, gazteena batez ere).

Heldu ziren halako batetan Udaletzeko geltokira. Bilbobusa noiz etorriko egon ziren pixka batetan. Gazteak ez zuen gehiago zurrutadarik egin eskuan zeukan edanontzitik. Pozik egin zion agur A. Linori hau autobusera igon zenean.


Beste lekuko batek Edith Stein-en itzulpena gaztelaniara egin zueneko pasadizua dakar.

Donostian argitaratzekoa zen liburu hori eta eliz zentsoreek, badaezpadako gauzak edo heresiak zituelakoan, ez zioten «Nihil obstat» delako oneritzia eman nahi. Harriturik, zentsoreengana joan eta gauzak argitu nahi izan zituen A. Linok. Badaezpadakotzat jotako esaldiok aipatzean, Linok lehen baino harrituago ihardetsi zien: «Hori? hori San Agustinena da, ba, eta...! Beste hori, berriz, Eliz Gurasoetariko urliarena...» eta abar. Ahobete hortzekin utzi zituen. Garai hartan Donostiako

apezpiku zen Font Andreu-k esan omen zuen, orduan: «Baina nor dugu hau? Espainiako teologorik handienetarikoa dugu bertan eta...»

Katuekin gertatutakoak Karmelon askok dituzte gogoan. Hona bi lekukorengandik jasotakoak:

Katuenganako zaletasun berezia erakusten zuen. Hau, etxean aitarengandik ikasitako zerbait zen nonbait. Ia egunero berak garbitzen zituen jatordu ondoren plateretako janari-hondarrak, katuentzat jangaiak arduraz bilduz. Etxe barman genuen katua sarri joaten zitzaion langelara eta mahai gainera igonik ordu luzeetan zehar aurrez aurre lagun egiten egon ohi zen, irakurketa edo eta idazketa aldietan, haren burumugimenduen arabera, berak ere burua gora eta behera erabiliz.



Bigarren lekukoak ere horren antzeko gauzatxo bat dakarkigu: «Hau neuk ikusia da», diosku honek: Linoren gelan sartu eta hura ikuskizuna! Lino serio-serio liburu bat irakurtzen ari zen eta katua ere bertan liburuaren aurrez aurre, biak batera irakurtzen baiieuden...

Hil aurreko arratsaldean ere, komentuko erigelako atera etorri zitzaion katua eta adi-adi ohera begira jarri eta berak irribarre gozoz erantzun.

Eritetxera eramán zutenean, katua, dirudienez, anbulantziaren ondorik joan zen eta gehiago ez da Karraelon agertu. Hona animalien sen harrigarria!

Bizkaiko Seme Kutun izendatuz, Diputazioaren omenaldia jaso ondoren, arratsaldean komentura heldu orduko, ohi zuenez, harrikoa egiteari ekin zion. Orduan komentuko lagunek esan omen zuten: honek omenaldi bat bakarrik ez, beste bat ere merezi luke egunero, bere egun handian ere kale egin gabe, egiten duenagatik...!

Izugarrizko oroimen bisuala zuen, diosku Karmelon urte luzez harekin bizi izan den batek. Hori liburutegian liburuak nahiz liburuen edukia aurkitzerakoan nabari zen batez ere. Oraindik gogoan dut, teologiako ikasle nintzela, liburutegiko fitxategia berriztatu eta liburuak oraingo metodoen arabera sailkatu zirela. Eta, jakina, hasieran gora-goraka jartzen zen lehen begiradan liburuak aurkitzen ez zituelako. Euskal liburutegian libururen baten bila aritzeko astirik izan ezik, harengana jotzea izaten zen biderik errazena. Artzainari ardiekin gertatzen zaiona, hau da, ardiak banan-banan ezagutzen dituela, antzeko zerbait gertatzen zitzaion Linori liburuekin.

Liburuetarako zaletasuna betidanikoa omen zen harengan. Teologian irakasle zela, goizean goiz «Saldana» eritetxera joan ohi zen hango mojekin eukaristia ospatzera. Etxerakoan beti ikustalditxo bat egin behar liburudendei. Inoiz hara gabe geratzen zenean, berehala antzematen genion, urduriago eta gogo txarragoz aritzen bait zen ikasgaia azaltzen. Azterketak zirenean, liburu berriren bat hari eskura eraztea zen onena. Irakurtzeari ekiten zion buru-belarri eta bitartean zerbait kopiatzea ez zen zaila. Hala ere, ziur aski, ez igarri gabe, gero guztioi, kopiatu nahiz kopiatu gabe, nota berdintsua jartzen zigun eta.

Behin baino sarriago heldu izan zen hemengo nahiz hango bileratik arratsalde erdian, bazkaldu gabe, liburuak boltsan nahiz besapean zituela. Jateko behar zuen dirua liburuak erosten gastatzen zuen...



Idazlanen bidez eskuratutako diruak liburuetan gastatzen zituela eta inork ezer esanez gero, liburu eta idazkien bidez lortutako dirua, konstituzio zaharren arabera, liburuetan gastatu beharra zela erantzun ohi zuen.

Gazteak euskara ikasten, euskal aldizkarietan idazten... ikustea oso gogoko zuen. Lekuko batek bere esperientziak kontatzen dizkigu:

«Azkenaldian, Deustun Euskal Filologiako ikasketak ezarri zirenez geroztik, maiz hurbiltzen zitzaizkion ikasleak bibliografia nahiz gai zehatz batzuri buruzko eritzi bila. Berak beti, eskuzabalez erantzun (...) Poz handia ematen zion gazteak euskararen ikerketa alorrean abiatzen ikusteak. Gehiago oraindik, halako pertsona bere herrikoa edo ingurukoa zenean.

Nik *Karmel-en* euskara batuan idatzi izan dut azken hamabost-hogei urte hauetan. Lehenago bizkaieraz egiten nuen. Inoiz ez zidan esan horri buruz ezertxo. Eta badakit nire lanak zehatz irakurtzen zituela, inoiz iruzkinak egin izan zizkidalako. Bide horretan asko preziatzen zuen hiztegi-gintzan «Bostak bat» taldekook egiten ari ginen lana eta hasitako lana hobetzeko erakutsitako grina. Hala agertu zuen igaz jendaurrean, Santutxun AEK-ren 25. urtea ospatzean egin genuen mahainguruan.

Teologiako ikasle ginela, geure artean, «GOGOZ» aldizkaria ateratzen hasi ginenean, oso pozik ikusten zuen gure lana, beraiei Larrean Aita Angelo (Jose Jauregi) eta abarrek emaniko bultzada gogora erazten ziola esanez.

Ikasle nintzela sarri galdetzen zidan Aramaioko hitzei buruz. Gogoan dut oraindik nola, behin, gerratean Arrazolan ibili zela eta hango baserritar bati «jarein» hitza «jarauntsi» hitzaren adieran entzun ziola eta ea hala erabiltzen genuen galdetu zidan. Gertakari honetan ikusten denez, oso gazte zelarik, euskal gaiez kezkatu ageri zen, hor-hemenka euskal hitzak jasoz.

Inoiz eztabaidarik izandako pertsonekin harremanak izaten ere bazekien (...)

Gerratean izandako gorabeherari buruz idazteko esan zitzaion inoiz; ez zuen nahi izaten orduko fraideen arteko salaketa konturik aipatzea. Barkatu ondoren, ahaztea ere gogoko zuela zirudien».

Harekin Karmelon bizi izan den batek diosku hau ere: Oso zintzo betetzen zituen bere erlijio-egitekoak, lanik ugari izan arren, eliz ordu-otoitz guztietan esku hartuz. Horretan bizitza osoan zehar eredu izan dugu.

Itxuraz zirudien baino sentiberagoa zen. Dimako udalak omenaldia egin zionean, zeharo hunkiturik geratu zen Amuriza eta Lopategik bazkalondoan ezer kobratu gabe bertsoetan egin

zutelako. Behin eta berriro aipatu zidan hori, dio lekuko batek, berari ere bertso bat eragin ziotela gaineratuz.

Olerki eta bertsozale porrokatua zen. Markinan zela autoz norabait joaten ginenean, puntuka egin ohi genuen hiruren artean, edo eta testularitzan, doinurik gabe esaldi errimatuz elkarri erantzuten. Noizbehinka estropozuka aritzen ginen puntuak onez eta moldez amaitu ezinik, baina hura zen hirurotarik onentxoena... Beste askotan, autoan euskal kanta zaharren libururik edo genuenean, kantari iharduten zuen gogoz. Musikaria ere bazen eta batez ere musika zalea. Oraindik haren ahuntz-ahots zoli dardartiaren oihartzuna entzuten ari naizela dirudi.

Markinan zegoela patata-kokoen arerio amorratua zen. Berehala galtzen zituen; gerora Karmelon zela, patatari koko zital hori agertzen zitzaionean, «Aita Lino ekarri beharko dugu» esan ohi zuten Markinan...

Bere irakurketa eta pentsamentuetan murgildurik egon ohi zen eta halakoetan inork dei eginez gero, ustekabean harrapatuaren antzera, bere senera datorren baten antzera, aupada edo deiadar bizia egin ohi zuen.

Bai, bere gauzetan murgildurik, eguneroko gauza txikietan ez zuen arretarik jartzen. Behin Gasteizera joan eta etxerakoan, bero zela eta bero zela. Baina ez zen bero eguraldiaren erruz soilik... Gero habitua eranzterakoan, bi habitu bata bestearen gainean jantzirik zituela konturatu zen. Ederki barre egin zion bere buruari!

Eta besterik ez, irakurle; gizon handiaren gauzatxo txikiak adierazi nahi izan ditugu, hain zuzen ere gizon handia handiago eta maitagarriago egiten duten zertzeladatxoak.

Luis Baraiazarra